2019ko apirilean erregistratutako langabezia

2019ko apirilean zehar LANBIDEko bulegoetan 2.308 langabe gutxiago erregistratu dira. Horrek esan nahi du murrizketa balore erlatiboetan %2koa izan dela, eta 115.644 langabe daudela. Normalean apirilean langabezia murriztu egiten da. Azken lau urteetan, baita krisi aurreko garaian, langabezia murriztu egin zen nabarmen apirilean. Krisi garaiko urteetan bilakaera ez zen egonkorra; urte batzuetan langabezia nabarmen murriztun zen, beste batzuetan ez zen horrenbeste murriztu eta bi urtetan langabezia hazi egin zen. Hil honetako murrizketa, azken bost urteetako bigarren handiena izan da, eta bosgarren handiena azken 15 urtetan. Hilabetea positiboa izan da.

Langabetuen hilabeteko saldoaren bilakaera



	api-05	api-06	api-07	api-08	api-09	api-10	api-11	api-12	api-13	api-14	api-15	api-16	api-17	api-18	api-19
Series1	-376	-316	-221	-883	1021	-382	1604	-22	-752	-75	-396	-137	-114	-226	-230

Urte arteko eboluzioari dagokionez, 9.260 pertsonetan murrizten da langabezia, aurreko hilabetean baino 48 gehiago. 2018an eta 2019 hasieran izandako urte arteko murrizketaren erritmoaren gutxitzearen tendentzia geratuz.

Erregistratutako langabetuen urte arteko saldoaren bilakaera



2019ko apirilean erregistratutako langabezia

• SEXUA

Azken hilabetean langabezia gizonezkoen artean gutxiago murriztu da (%1,6) emakumezkoen artean baino (-%2,2). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonen artean %8,2 murriztu da, eta emakumeen artean, berriz, %6,9 soilik. Gaur egun langabeen %57 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekuperazio ahalmen handiago erakusten ari da.

• ADINA

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan murriztu da. Murrizketa handiena 25 urte azpikoen eta 25-34 urte artekoen tartean izan da (-%3,1 bi kasuetan). Urte arteko saldoan ere, 24 urte azpikoen artean bakarrik hazi da langabezia. Jaitsiera handiena 25 eta 44 urte arteko tartean izan da. Langabeen erdiak (%51,3) 44 urte baino gehiago ditu, %24,4ak ez ditu 35 urte baino gehiago eta beste %24,3a 35 eta 44 urteen artean kokatzen dira. Langabeak zenbat eta zaharragoak izan orduan eta zailtasun handiagoak dituzte laneratzeko. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Apirilean zehar, langabezia sektore ekonomiko guztietan murriztu da. Zerbitzu sektoreko murrizketa nabarmentzen da, 1.936 langabetu gutxiago (%2,5eko murrizketa). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean 83 langabe gutxiago zenbatzen dira. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz eraikuntza sektoreko murrizketa nabarmentzen da, %15,6ko jaitsiera, baita lehen sektorekoa (%9ko jaitsiera) ere.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handiena izan duena txikizkako merkataritza izan da 402 langabetu gutxiagorekin, eta ondoren janari eta edarien zerbitzuak (-293). Igoera nabarmenak izan dituzten jarduera batzuk hauek izan dira: eraikuntza bereziko jarduerak eta makineriaren instalakuntza eta konponketa (+17 bi kasuetan).

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 314 pertsonatan murriztu da eta epe laburrekoa 1.994 pertsonatan. Urte osoari begiratuz gero, ikusten da jaitsiera handiagoa izan dela epe luzeko langabeen artean (%11,7a, epe laburreko %2,4aren aldean). Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Apirilean langabezia hiru lurraldeetan murriztu da: Araban %1,7, Gipuzkoan %3,1 eta Bizkaian %1,5.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio onena %7,9ko jaitsierarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio %7,7ko jaitsierarekin eta azkenik Araban %5,3 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Gasteizen azken hilean 257 pertsonatan jaitsi da langabezia, Bilbon 182 pertsonatan eta Donostian 266 pertsonatan. Langabezia hazi diren eskualdeak Arabar Errioxa (+13) eta Arabako Lautada (+9) izan dira. Aldiz, eskualde hauetan langabezia jaitsi egin da: Ezker Eskualdea (-246) eta Bidasoa Behera (-165).

2019ko apirilean erregistratutako langabezia

Hil honetan erregistratutako langabezia handiena duten udalerriak honako hauek izan dira; Oion (%21,07), Sestao (%18,73), Lanestosa (%18,10), Balmaseda (%16,80) eta Lapuebla Labarka (%16,38).

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2019ko apirilean 35.805 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 809 langabe gutxiagok. Langabeen %31ak du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 20.294 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen %17,5 dira horiek. 15.511 langabek (%13,5), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (%33,7), Araban eta Bizkaian %29,9koa eta %30koa da, hurrenez hurren.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasa 0.1 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz, berriz, 2.6 hazi da.

• IKASKETA MAILA

Langabeen %62,1ak (71.814 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 1.119 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan %7,7 jaitsi da langabezia azken urtean.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen %8,9 dira. Talde horretan %2,2 jaitsi da langabezia azken hilean, eta azken urtean %5,4a.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 19.949 dira, hau da, langabeen %17,3. Talde hau apirilean zehar %3,4 murriztu da (lau taldeetan handiena), eta azken urtean %6,7.

Azkenik, langabeen %11,8k (13.609 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean %1,8 murriztu da langabezia azken hilabetean eta %8,3 azken urtean, talde guztietan jaitsiera handiena urteko bilakaeran.

• JATORRIA

Langabeen %15,8 (18.298 lagun), atzerritarrak dira. Martxoarekin alderatuta, ikusten da langabezia murriztu egin dela atzerritarren artean %1,8, eta bertakoen artean %2.

Langabe atzerritarren %35,2a Afrika iparraldekoak dira, %21,1a Latinoamerikatik datoz, %19,7 Europako Esparru Ekonomikotik, %14,5a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta %5,7, azkenik, Asiatik. Apirilean Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-%3,2).

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 91.518 langabe gutxiago daude apirilean baino (%2,81ko igoera). Horrek esan nahi du guztira 3.163.566 langabe daudela erregistratuta; EAEn, berriz, %1,96 murriztu da. Urtaroko izaera duten sektoreen (turismoa edo lehen sektorea) suspertzeak, sektore hauek garatuak dituzten erkidegoei egin die mesede. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziaren murrizketa nabarmenagoa izan da EAEn baino; Kantabrian %5,29 murriztu da, Nafarroan %3,30 murriztu da, Errioxan %2,44 hazi da eta Gaztela eta Leonen, aldiz, %2,47 murriztu da. Erkidego handienen artean Katalunian %3,57 murriztu da eta Madrilen %1,70 murriztu da.

Urte arteko bilakaeran, langabezia gutxiago murriztu da Estatuan (-%5,17) EAEren aldean (-%7,41).

Lan-eskatzaile langabeak 2019ko apirilean

	api-2019	mar-2019	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	49.672	50.474	-802	-1,59
EMAKUMEZKOAK	65.972	67.478	-1.506	-2,23
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	8.034	8.292	-258	-3,11
GIZONEZKOAK	4.069	4.219	-150	-3,56
EMAKUMEZKOAK	3.965	4.073	12	-2,65
25-44 URTE:				
GUZTIRA	48.305	49.625	-1.320	-2,66
GIZONEZKOAK	19.986	20.445	-459	-2,25
EMAKUMEZKOAK	28.319	29.180	-861	-2,95
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	59.305	60.035	-730	-1,22
GIZONEZKOAK	25.617	25.810	-193	-0,75
EMAKUMEZKOAK	33.688	34.225	-537	-1,57
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA				
INDUSTRIA	2.627	2.668	-41	-1,54
ERAIKUNTZA	13.691	13.914	-223	-1,60
ZERBITZUAK	8.259	8.284	-25	-0,30
AURREKO ENPLEGURIK GABE	76.479	78.415	-1.936	-2,47
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.113	19.439	-326	-1,68
BIZKAIA	66.289	67.295	-1.006	-1,49
GIPUZKOA	30.242	31.218	-976	-3,13
EAE	115.644	117.952	-2.308	-1,96

	Langa-betuak	Erregistratu-tako langabe-zia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.919	10,6%	-165	-4,04	-283	-6,73
Oarsoaldea	3.475	9,7%	-120	-3,34	-291	-7,73
Donostia-S.Seb.	7.404	8,4%	-266	-3,47	-716	-8,82
Donost.Mendebaldea	2.893	8,0%	-107	-3,57	-359	-11,04
Tolosaldea	1.974	8,5%	-55	-2,71	-224	-10,19
Urola Erdia	1.235	8,2%	-36	-2,83	-91	-6,86
Goiherri	1.606	7,7%	-38	-2,31	-100	-5,86
Deba Garaia	2.401	8,0%	-5	-0,21	-146	-5,73
Deba Behera	2.777	10,6%	-47	-1,66	-129	-4,44
Urola Garaia	1.044	8,7%	-41	-3,78	-95	-8,34
Urola Kosta	1.514	6,8%	-96	-5,96	-84	-5,26
GIPUZKOA	30.242	8,7%	-976	-3,13	-2.518	-7,69
Vitoria-Gasteiz	14.952	12,1%	-257	-1,69	-864	-5,46
Aialako Ibarra	2.226	11,8%	-87	-3,76	-143	-6,04
Arabar Errioxa	730	13,8%	13	1,81	-27	-3,57
Arabako lautada	625	8,5%	9	1,46	-44	-6,58
Gorbeia inguruak	280	6,0%	-2	-0,71	16	6,06
Arabako Ibarrak	357	7,4%	-11	-2,99	-27	-7,03
Arabako Mendialdea	88	5,9%	2	2,33	-20	-18,52
ARABA	19.113	11,7%	-326	-1,68	-1.063	-5,27
Gobela	4.753	9,1%	-116	-2,38	-430	-8,30
Txorierri	2.188	9,5%	-23	-1,04	-266	-10,84
Uribealdea	2.953	9,0%	-61	-2,02	-204	-6,46
Durangaldea	3.169	8,5%	-93	-2,85	-169	-5,06
Busturialdea	2.203	10,2%	-10	-0,45	-93	-4,05
Lea-Artibai	926	7,7%	-96	-9,39	4	0,43
Enkarterriak	2.139	13,7%	-32	-1,47	-171	-7,40
Arratia-Zornotza	1.421	8,2%	-28	-1,93	-80	-5,33
Arratia-Nerbioi	1.343	10,3%	-49	-3,52	-71	-5,02
Bilbo	22.801	13,6%	-182	-0,79	-2.171	-8,69
Ezkerraldea	17.616	14,1%	-246	-1,38	-1.667	-8,64
Ibaizabal	4.631	11,6%	-62	-1,32	-316	-6,39
BIZKAIA	66.289	11,9%	-1.006	-1,49	-5.679	-7,89
EAE	115.644	10,8%	-2.307	-1,96	-9.261	-7,41

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.